

## 8.12 UDALAREN ENPRESA ZENTROETAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOIA

### KONTZEPTUA

#### 1. artikulua

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 2.1.h artikuluan eta, horren haritik, 43.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Udalaren Jundizko eta Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroetako aretoak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautzen baitira.

### ORDAINTZERA BEHARTUAK

#### 2. artikulua

Aurreko artikuluan aipatu diren prestazio edo ustiapenak jasotzea baimentzen zaien pertsona edo entitateak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

Hauetaz izango dira Udalaren enpresa-zentroetako espazioak erabiltzeko eskabidea egiten dutelarik prezio publikoaren % 100eko diru-laguntza jaso ahal izango duten kolektiboak:

- Udalaren enpresa-zentroetan kokatutako enpresak.
- Udalarekin hala jasotzen duen hitzarmena sinatua duten erakundeek menpeko enpresa-zentroetan kokatutako enpresak.
- Ekonomia-sustapenarekin zerikusia duten jarduerak —Gasteizko Udalak interes sozialekotzat jotzen dituenak— bideratzen dituzten gizarte-eragile eta eragile ekonomikoak.

### ZENBATEKOA

#### 3. artikulua

Bulego eta pabilioiek osatzen dituzte Udalaren Jundizko eta Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroak —pabilioiak, Jundizko Udal Enpresa Zentroaren kasuan bakarrik—, eta enpresa berriei kokalekua eskaintzeko baliatzen dira. Era berean, enpresa-zentrotik kanpoko enpresa nahiz erakundeek ere erabil ditzaketen hainbat areto dituzte.

Hurrengo atalean prestazio edo ustiapenetako bakoitzeko adierazten diren tarifetan finkatzen dena izango da ordenantza honen bitartez argitaratzen den prezioaren zenbatekoa.

ENPRESA-ZENTROA	ARETOA	ORDUKO EDO ORDU-ZATIKO PREZIOA	EGUN ERDIKO PREZIOA	EGUNEKO PREZIOA
Jundiz	Erabilera askotarako aretoa	17,88 euro	59,59 euro	99,34 euro
Erdi Aroko hirigunea	Agora	17,88 euro	59,59 euro	99,34 euro

## ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA

### 4. artikulua

1. artikuluan adierazitako ustiapenerako baimena jakinarazten denean sortuko da ordaintzeko obligazioa.

### Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.